


Ttiki-ttaka

euskaldunon aldizkaria, 26. Zk.




aunkibidea

HERRIZ HERRI

Bastida		4
Biasteri		6
Lantziego		9
Lapuebla de Labarka		10
Oion		13

ERREPORTAIAK

Kalean bizi-bizi		14
Euskaraz bizi nahi dut		16
Mintzalaguna gure eskualdean bizi-bizirik		17
Johanes Aztiaren Ondorengoak...		19
Aiaraldea.eus		22
TTIP itunaz		23

ELKARRIZKETA

Patxi zabaleta	26
----------------	----

DENBORAPASAK

Denborapasak	29
--------------	----

NON GOGOA, HAN ZANGOA

EKA eguna	33
-----------	----

Gure esker ona ondokoei:

- Joxemi Rodriguezi, Biasteriko artikuluan argazki eder pareta uzteagatik.
- TTIP itunaren aurkako plataformari egindako ahaleginarengatik.
- Eta zuoi guztioi. EKA eguna antolatzen lagundu duzuen guztioi, eta Ttiki-ttaka elkartearen sendotzen jarraitzeagatik.

Urtero bezala, hemen gatoz udari deika gure eskualdeko kontu batzuren berri ematera.

Ez da lan erraza izaten Ttiki-Ttakan parte hartzen dugunon aldetik zuei lan hau eskaintzea, batez ere gure artean ez dagoelako kazetaririk, jakitun gara badugula hobetzeko tartea, baina baita ere badakigu egiten dugun lanak baduela meritua, 26. aldia baita, eta ilusioa ez dugu galdu.

Urtea joan zaigu, eta iaz eskuartean genituen erronka nagusiek bizirik diraute: **eskolaz kanpoko kirola euskaraz** bultzatzea eta **gazteen euskararen erabilera kalean sustatzea**. Lehenengo puntuari dagokionez, *Kalean bizi-bizi* egitasmoa landu da negu eta udaberrian zehar eta orokorrean ateratako ondorioak oso positiboak direla esan dezakegu, aspaldi Ttiki-Ttakan ikusten genuen beharra, jende gehiagoren beharra bihurtu da. Bigarrenari dagokionez Gazteak Euskaraz egitasmoan urrats bakarria eman da eta nahi baino geldiago doa proiektua, baina horrek ez dio garrantzia kentzen eta ekinean jarraituko dugu, gazteen laguntzarekin noski.

Aurrekoak alde batera utzita, Ttiki-Ttaka Elkarteak ume izatetik, gazte izatera pasatu zen, eta dagoeneko heldua da. Hori dela eta heldutasunak ematen duen patxada

kontuan hartuta ari gara gure barnera begira, etorkizuneko ibilbidea eraikitzeko. Egia da, Ttiki-Ttaka sortu zenean Arabako Errioxan eta Vianan geunden euskaldunak sakabanatuta geundela, ez zegoen elkargunerik. Garai haietan euskarazko emanaldirik ez zegoen, edo bakarren bat ikastolek edo euskaltegiak antolatuta. Denborarekin eskualdean kultura elkarteak sortu dira, euskararen aldeko taldeak, bertso taldea... asko dago egiteko, baina ezin daiteke ukatu gauza asko ere egin direla. Hori dela eta Ttiki-Ttaka Elkarteak bere bidea egokitu beharra du etorkizunean gure eskualdeko euskararen normalizazioa lortzeko eraginkorrenak eta beharrezkoenak izan daitezkeen lanak egiteko edo eragiteko.

Zoritxarrez etorkizunean ere gure eskualdeko euskararen normalizazioan lana izango dugu, baina lanean eraginkorra izatea eta hor gabiltzan denon arteko koordinazioa eta indarren metaketa egotea oso garrantzitsua izango da. Gero eta gehiago gara eskualdean euskara gure bizitzako arlo guztietara zabaltzeko lanean ari garenak, bakoitza bere arloan protagonista izan behar da, baina iparra ezin dugu galdu eta hor protagonista bakarria dugu: euskara eta hizkuntzaren normalizazioa.

bastida.....

Eskola Agenda 21 Programa

Aurten Bastida Ikastolak erronka berri bati heldu dio, honen garrantzia ikusirik gaur egungo umeei zein gizarteak duen kezkei aurre egiteko. **Eskola Agenda 21 programa** ikastetxearen kalitaterako eta iraunkortasunerako hezkuntza-programa bat da. Hezkuntza-komunitatearen partaidetzan dago oinarrituta, ikasleari aparteko protagonismoa emanaz eta udal herriaren garapen iraunkorrean lagunduz. Gainera, ESKOLAKO AGENDA 21ek proposatzen duen hezkuntza-praktikak ikasleari lagunduko dio, batetik, inguruan dituen ingurumen-arazoak ezagutzen eta horietaz jabetzen, eta, bestetik, modu arduratsuen gizarte justuago eta ekologikoki iraunkorrago baten alde egiten.



Azaltzen diren erronketako bat da hezkuntza etorkizuneko belaunaldientzako konpromisoa izatea. Hezkuntza honela aurkezten da: *“Ingurumenerako beharrezkoak diren aldaketa transformatzionalak bideratzeko tresna boteretsuenetako bat da; honela, oraingo belaunaldien konpromiso etikorako oinarriak ezarriko ditugu, etorkizuneko belaunaldientzat.*

Erronka honi gure gazteak ingurumenaren arloko erabakiak hartzerakoan benetan kontuan hartzean aurrera egitean datza; horri esker belaunaldien arteko parte-hartze eta erantzukidetasunaren maila altua ahalbidetzen da.”

Horregatik guztiagatik, hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazio eremuan lehentasuneko helburua da eskola-esparruko esku-hartzea bultzatzea.

Programa hau Ikastolan oinarritu da eta Arabako Errioxako mailako bilerak egoten dira hilero, bertan ikastetxe ezberdinak elkartzen gara eta bakoitzak bere esperientziak kontatzen ditu, baina beti Ingurumen gelako aholkulariaren gidaritzapean.

Aurten landu den gaia elikadura jasagarria izan da eta kanpaina ezberdinak eraman dira aurrera, bai ikastolako jantokian, hemen jantokian zenbat janari botatzen den ikertu dute ikasleek eta baita ere, kanpoko aholkulari baten bitartez, gosari osasuntsua landu da.

Tiki-taka 2016

Erronka hau ez da bakarrik ikastolako baizik eta Bastida herrira ere zabaldu nahi da, horregatik datorren maiatzaren 27an akordio bat sinatuko da ikastola eta udalaren arteko elkarlana bultzatzeko.

Horretaz gain, ekainaren 10ean, Bastidako Kultur Etxean, Eskola Agenda 21eko udal foroa egingo da.

Hau zabalik egongo da bertara joan nahi duten guztientzako.

Aurretik aipatutako guztiagatik uste dugu Bastida Ikastola proiektu honetan murgilduta egon behar dela gure eskola komunitatea eta Bastida herria ere sentsibilizatzeko eta egoeraz jabetzeko.



KUBO HANDIA → 2,69kg
KUBO TXIKIA → 0,43kg
ausolan

ALFERRIK GALDUTAKO JANARIA

2015eko azaroa 23.etik 27.era astea

ASTEKO EGUNA	ZAKARRONTZIAN DAGOEN JANARI KANTITATEA KILOGRAMOTAN	JANTOKIA ERABILI DUTEN HAURREN KOPURUA	HAUR BAKOITZAK ALFERRIK GALDUTAKO JANARI KANTITATEA
ASTELEHENA	15,71kg	126	0,124kg
ASTEKARTEA	7,76kg	126	0,061kg
ASTEAZKENA			
OSTEGUNA	15,70kg	126	0,124kg
OSTIKALA	14,72kg	126	0,116kg
GUZTIRA	53,89kg		0,425kg

Espainiako Herririk Politenetako Bat?



Badira hilabete batzuk, FITUR izeneko ferian, hain zuzen, “Los Pueblos más Bonitos de España” izeneko elkarteak Biasteri herriari izendapen hori eman ziola. Elkarte hori 2011ko martxoan sortu zuten, eta zerrenda berezi horretan parte hartzeko bi baldintza baino ez dira bete behar: 15.000 baino gutxiagoko biztanleria izatea eta ondare natural zein arkitektonikoa edukitzea. Behin bi baldintza horiek izan ondoren, halako auditoria egiten dute elkartekoek, eta bertan hainbat ezaugarri hartzen omen dira kontuan, hala nola, autorik ez ibiltzea herri barruan, garbitasuna, lorategiak, etxeen aurrealdeak zainduta egotea eta abar. Ekitaldi hartan, besteak beste, Francisco Mestre izan zen, elkartearen lehendakaria, eta handik aste batzuetara Biasterira bertara abiatu zen emandako izendapena berrestera.

Mestrek, ordea, Biasteri herriaz tutik ere ez zekiela aitortu zion norbaiti. Ez zekien herriaren azpialdea erabat zulaturik zegoela, ez ezta La Hoya herrixkatik etorritakoak izan zirela Barbakana deritzan aldean urmaela egin zutenak (Europako handiena). Ez zuen ezagutzen Santa María de Los Reyes elizaren aturrearen polikromo aparta... Susmoa dut ez ote den dirua eman behar horrelako lehiaketetan parte hartzeko...

Tira, zalantzarik gabe, harro egoteko modukoa da. Gainera, orain gutxi, maiatzaren 11n, hain zuzen, Quebec hirian bildutako elkarte horren lehendakariak munduko herririk politenetako bat dela adierazi zuten. Canadako hiri hartan Belgika, Errusia, Japonia eta Italiako ordezkariak bildu ziren, eta hala erabaki zuten.

Baina Biasterikoak bertakoak horren pozik al daude? Asko eta asko bai segurutik, baina aurkitu dugu kexu denik ere. Jarraian hemengo gazte batek esan zizkigunak:

“Biasteritarrok harro sentitu behar genuen orain jaso dugun sariarekin, baina neure buruari galdetzen diot benetan merezi ote dugun horren sari esanguratsua; herri honen alde politenak eta deigarrienak zein diren ondotxo dakigu, baina hobetu behar den konturik ere bada.

Biasterin orain urte batzuk oso ohikoa zen etxeko animaliak ikustea gure etxeetan nahiz kaleetan, direla astoak, zaldiak, txakurrak eta abar. Orain, berriz, nahiz eta herriko bistanle gehienek garai hura ezagutu, begi onez ikusten dute “El Collado” pasealeku ospetsuan maskotak



Tfiki-ffaka 2016

paseatzera eramatearen debekua. Zikintzen dutela diote, baina, aldi berean, badaude herriko leku ugari zaborrez beterik agertzen direnak, eta harritzekoa bada ere, horrela egon eta egongo dira urte luzez.



“Bakea datozenentzat, osasuna bertakoentzat eta zoriona doazenentzat” diote Biasteriko sarreretan jarritako hainbat kartelek. Egia da bakea dela nagusi astean zehar; asteburuetan eta jaietan, aldiz, jendeak bere sena kaskarrak askatzen ditu. Badirudi ongi pasatzeko tabernetara jotea dela gure hautabide bakarra, eta guztiz ezatsegina iruditzen zait gauean zenbait taberna kez beterik aurkitzea erretzea debekatuta egon arren. Taberna horietan herriko ordezkari zein udaletxeko langile batzuk ikustea ohikoa da debekuari muzin eginda. Bestalde, jaietan egiten diren ekitaldiak horrelaxe laburbildu daitezke: basabehiak kaleetan gora, kaletan behera eta musikaldi edo hobe esan “DJ” izeneko baten jarduna (ez omen dago dirurik benetako musikariak kontratatzeke, etzierro

bakoitzak 3.000 euroko gastua ekarri arren)

Amaitzeko, baloiekin aritzea, bizikletaz ibiltzea edo patinetekin jolastea DEBEKATUTA dago leku gehienetan; gainera, herritik gertu daukagun frontoia kotxez betetzen da maiz. Eskolakoak, berriz, itxita egoten da, eta giltzak ez dira erraz eskuratzen

Ez naiz gehiago luzatuko. Aipatutako adibideekin konturatuko zarete Biasteri (eta ez Guardia) ez dela hain herri bikaina azken finean”.

Marcosok larogeita hamar urte bete zituen apirilaren 25ean, San Marcos egunean, hain zuzen. Mutilzaharra Biasterin jaioa. Hemengo beste asko bezalatsu mahastiak zaintzen ibiltakoa. Betidanik izan ditu animaliak, agian bakardadea uxatze aldera. Mando eta asto ugari izan ditu bere ibilbide luzean, eta ez zitzaion sekula ere falta zakurtxo baten laguntasuna. Lagun horiei guztiei izen bera jartzen zien: Mori (Morica ibiltzen du maitasuna adierazi nahian edo). Erretiratu zela gaixotu zen, eta bere azken mandoa saldu behar izan zuen pena handiz. Harrezkeroztik ez du bere inguru kuttunetara joaterik izan, baina egunero goizean goiz eta ordu berean “Mori” laguna ondoan duela ordubeteko paseotxoa egiten du. Ondoren, erosketak egin, bazkaria prestatuta utzi eta ohiko tabernara joan ohi da txikito bat hartzera. Ordu bietan beti. Behin ez zen ordu horretan azaldu, eta kezkatu tabernariari galdetu nion; horrek erantzun: “Lasai egon! Kontua da ez diola ordu aldaketari jaramonik egiten”. Egun kexu da zakurtxoarekin “El Collado” pasealekuan ibiltzea galerazi baitiote. Aurreko batean zitzu bizian zetorren autoak ia harrapatu zuela kontatu zidan mindurik. Errepidean ibiltzen da orain beti bezala patrikak paperez beterik daramatzala Moriren eginkariak jasotzekotan.



Tfiki-ffaka 2016



Ilbilde orok bere helmuga du eta bidean zehar, mugarriek jarraitu beharreko bidea erakusten digute. Gure eskualdean jada ibilbide luzea egin du euskarak eta bere normalizazioaren alde egindako lanak. Horren isla Euskal Kultur Asteburua dugu, gurean burutzen den ibilbide horretako mugarririk edo hitzordurik garrantzitsuenetakoa. Aurten EKAREN enegarren edizioa Lantziegon ospatu zen maiatzaren 20 eta 22an.



Asteburu honi hasiera eskualdeko haurrek eman zioten; ostiralean Arabar Errioxako herrietatik eta Vianako ikastolatik etorritako 600 ume baino gehiago elkartu ziren. Herreraren ostean, 2-7 urte bitartekoek tailerrekin gozatu zuten ikastolako patioan. Bitartean, nagusiagoek orientazio lasterketa egin zuten herrian zehar; mapa soil baten laguntzarekin baliza guztiak aurkitu eta proba ezberdinak gainditu behar izan zituzten. Denek elkarrekin bazkaldu eta gero, txikienak Dj Porrurekin dantzan aritu ziren; besteek, aldiz, jolas kooperatiboek esker arratsalde atsegina pasatu zuten.

Gauean gazteen txanda izan zen, haiek ere Euskal Kultur Asteburuan ezinbestekoak izaten dira urtero. Horretarako Ttiki ttaka elkarteak eta Lantziego Ikastolak ekintza ezberdinak antolatu zituzten; denak “made in Arabar Errioxa”. Batetik, bertako trikitilari eta bertsolariekin girotutako pintxo-potea izan zen; bestetik, eskualdeko taldeek eskainitako rock kontzertuak, Eh Mertxe eta Astoratuak taldeek eskainitakoak hain zuzen ere.

Igandean, astebukaerari amaiera emateko, Arabar Errioxako euskaltzaleak bildu ziren Lantziegon. Herrerako hitzaldiak, Lantziego Ikastolako eta Ttiki-ttaka elkarteko kideen esku, jaiari hasiera eman zion. Ondoren, herri kirol erakustaldia izan zen. Gainera, txikienek eta ez hain txikiek proba ezberdinetan parte hartu zuten. Dantza erakustaldia ere izan zuten, Lantziegoko dantzari txikien eskutik; baita zonaldeko beste zenbait taldetakoak ere, Vianakoak, esate baterako. Bazkari herrikoian 70 lagun inguru bildu ziren eta festa arratsaldean zehar jarraitu zuen diskoteka-mugikorrarekin.

Asteburuaren amaierarekin, mugarri hau atzean utziko dugu; baina bidean aurrera egin behar dugu pausoz pauso helmugaraino.



Lapuebla de Labarka.....

Isidro Deunaren Jai Eraldatuak



Aurten urtero bezala Isidro Deunaren jaiak ospatu dira Lapueblan, baina ez dira azken urteetan izan diren bezalakoak izan; aurtengoak erabat ezberdinak izan dira. Zergatik? Batez ere, hiru ekitaldi ezberdin egon dira: batetik estropadak, bestetik Lorez apaindutako balkoien lehiaketa eta, azkenik, Goi Mailako Kotheen erakusketa. Zehaztasun gehiago emateko gehienak “Corvette” markakoak.

Nahiz eta Araba Euskaraz jaiak direla eta Pobedan bi aldiz estropadak egon, aurten Lapuebla de Labarcako Lehengo Bandera lehiatu zen Ebron. Bertan Tolosa, Zarautz, Lekeitio eta Elantxobeko arraunlariak aritu ziren jo eta su gure ibaiko uretan. Gainera, aurretik aipatutako herrietako jarraitzaileak izan ziren gure herrian, eta eguerdian “sartenada” ederra dastatu zuten Covila ardo kooperatiban.

Azpinarratu behar da aurtengo Isidro Deunaren jaietan, aspaldi lortzen ez zen jai giroa somatu zela Lapueblan, batez ere, lapueblarrak izan zirelako hobetoen pasatu zutenak, horixe baita, azken batean, herrietako jaien oinarri nagusia.





Aurtengo neguan Euskaltzaindiak Patxi Salabaerrik egindako lan mardula bezain zehatza argitara eman du: *Araba/Álava Los nombres de nuestros pueblos*. Bertan gure herrialdeko herrien izenen hainbat berri zehatz jasotzen da. Esan behar da pena dela horrelako lan eder bat gaztelera hutsean egotea, nahiz eta euskaltzaindiak argitaratu.

Aurreko aipamena albora utzita eta

berrito liburuaren edukian sartuz honako atalak lantzen ditu bere orrietan: **Herria:** Páganos.

Izen ofiziala: Páganos.

Dokumentuak:

Atal honetan idazleak idazten du izen horren aipameneren dokumentu, liburu eta abarren berri ematen digu.

“Martin de Paganos (Guardia, 1280; Zabalo, 1972:81), Paganos (1350, 1366, Carrasco, 1973: 343, 635), Hohan Lorent de Paganos (Guardia 1366; ibid, 655), Paganos (1551, Dbo., 1998: 306; s. XVIII, Gam., 35; 1802, RAH, II, 222; 1849, Madoz, XII, 513).

Ahoskera: [pá.ɣa. nos], [pá.ɣa. nôs]

Etimologia:

Albertosek (1970: 214) hitzetik eratorria, ikusten du, “jatorri kristaua izan dezakeen hitza”; *pagani* deiturikoak, dazleak dioenaren arabera, hirietako biztanleak baino beranduago erromanizatu eta kristaututako nekazal lurretako biztanleak ziren. Caro Barojak (1980:202) izen honek “pagani” batzuk izandetzeko erabiltzen zela, baina ez daki ziur paganos hitzarekin “kristau ez zirenak”, “nekazal lurretako biztanleak”, “hirietako biztanleak” edo besteren bat. Orrialdearen oinean idazleak azentuaren kontua aipatzen du, hura proparoxitonoa izanda “aldaerak daitezkeela ahoskatzerakoan eta euskararen eraginez”. Mitxelenak (1982:302) dio *Páganos* “ziur asko erromatarren aurrekoa da, euskara ez”.

Adibidea irakurri baduzue konturatuko zineten idazleak egindako lana benetan harrigarria dela, aurrekoarekin bezala, Arabako herrien izen guztiak aztertuz. Bukaeran idazleak lan hau egin eta gero atera dituen ondorioak txertatzen ditu, eta noski beldurtzeko moduko zerrenda, bertan landu duen bibliografia agertzen delarik. Benetan arabarrok idazlea, Patxi Salaberri zorientzeko moduko lana.





Maiatzaren 21ean, larunbatean ospatu zen Kulturartekotasunaren jaia. Plano Enparantzan. Goizeko 11:30ean hasi eguerdiko 14:00ak arte giro polita egon da gure herrian. Bertan herrialde ezberdinetako ordezkariak izan dugu; bereziki beraien herriko jakiak prestatu dituzte, eta lapueblarrok dastatzeko aukera ezin hobea izan dugu. Denok dakigun bezala, janaria eta musika baino gauza hobeagorik ez dago giro ona lortzeko eta harremanak eraikitzeko.

Jarritako karpetan Portugalgo jaki gozoa dastatzeko aukera izan dugu, Marokoko “cuscus” ezaguna eta tea ere bertan egon dira; Pakistango ordezkariak egindako arroza eta lapueblarrek “ardotan egositako txorizoa”. Aurrekoiez gain, beste hainbat herrialdeetako ordezkariak ere gure artean egon dira: Errumania, Kolonia...



Omenaldirik Onena, Omenduen Eredua Jarraitzea

Topaleku berria du euskalgintzak Oionen, kioskoa. Apirilaren 24an, eguerdiko 12;30ean, inauguratu zen. Euskaldun Berrien Kioskoa.

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko egunean, Eusko Jaurlaritzak, EAEko hiru lurraldeetako Foru Aldundiek, hiru hiriburu-eta Udalek eta Eudelek bultzatuta euskaldun berriei omenaldia egin zitzaion. Aurretik aipaturiko erakunde horiek proposatu zuten, esker ona egun bakar batean gera ez zedin, udalerrietako kale, plaza, lorategiren bat, besteak beste, Euskaldun Berrien dena-delakoa izendatzea.

Oionera ere iritsi zen proposamena Bilduko eskutik, eta aho batez erabaki zuten bidezkoa zela udaletxean. Buruari bueltak eman ondoren zein izan zitekeen gunerik aproposena, kioskoa hobetsi zuten.

San Prudentzio festen aurreko igandean izan zen inaugurazioa. Festen aurrerapen aproposa. Ez zen jende asko bildu, hala ere. Oiana trikitixa taldekoek eman zioten hasiera ekitaldiari, kiosko gainean zenbait euskal pieza jo zituzten. Ondoren alkateak hartu zuen hitza eta, euskaraz lehenbizi eta gaztelaniaz ondoren, gizabanako asko eta askoren esfortzua baloratu eta eskertu zuen. Euskara biziberritzeko lanetan jarraitzeko asmo sendoa erakutsi



zuen herritarrek hala eskatzen badiote, behintzat.

Eskolako, Ikastolako eta Euskaltegiko ordezkariak hartu zuten hitza ondoren –hauek euskara hutsean–, eta guztiek ere euskararen aldeko ezagutza, erabilera eta motibazio lanetan jarraitzeko asmo sendoa erakutsi zuten. Bertsolariena izan zen azken hitza. Oihane Perek Oionen eskola orduz kanpo ematen dituen bertso eskoletako ikasleek abestu zituzten zenbait koplak lehenbizi, eta, amaitzeko, Oihane eta Txandrio taldeko Orlando aritu ziren bertsoetan. Handik aurrera, tabernetan trikitilariak eta txikiteoa.

Ongi etorri, Euskaldun Berrien Kioskoa! Ez dezagun ahaztu, hala ere, omenaldirik egokiena omenduen eredua jarraitu eta zabaltzea dela, euskararen bizi-indarra bermatzea baita, zalantzarik gabe, euskaldun

berri orok eginiko ahalegina aitortzeko eta eskertzeko gure gizarteak duen modurik onena. Euskaratik urrun dagoena euskarara hurbilduz, euskaraz badakienak erabiliz; azken batean, bihotzetik ezpainetara eramanez iraunkortu dezakegu euskararen hazkundera.

Euskaldunok euskara beti izan dezagun, euskaldun berri edo zahar, garrantzitsua euskara erabiltzea da, jolasteko erabiltzea, pentsatzeko erabiltzea, amesteko erabiltzea, bizitzeko erabiltzea.

Hizkuntzak egiten gaitu gu eta guk egiten dugu hizkuntza. Elkarri emanez bizi gara. Hizkuntzak guri eta guk hizkuntzari, elkarri, arnasa eta izatea ematen dizkiogu.

erreportaiak

Kalean Bizi-Bizi

Ttiki-ttakan jakin badakigu hizkuntza baten biziraupenerako ezinbestekoa dela transmisioa: familia edota hezkuntza bidezkoa. Hori baina ez da nahikoa hizkuntza baten biziraupen duinerako. Hizkuntza bat bizia izateko gakoa erabileran datza. Horregatik, gure elkartean lanean ari gara banakoen ingurune hurbilean eragiteko: familia, ikasketak edota lana, eskolaz kanpoko edo aisia eta lagunartea. Eskolaz kanpokoan edota aisian kokatzen da “Kalean bizi-bizi” izendatu dugun proiektua. Horren bitartez lortu nahi duguna da euskarak presentzia gehiago izatea ume eta gazteen eskolaz kanpoko kirol eskaintzan. Eskola orduz kanpoko jarduerak ezaugarri bereziak dituzte eta horiez baliatu nahi dugu euskarak kirolean presentzia gehiago izateko: pertsona batek dinamizatzen ditu, hezitzaile batek dinamizatutako saioak izaten dira, eta beraz, euskararen erabilera ere dinamizatu dezake; egoera komunikatibo asko ematen dira eta eskolakoak baino informalagoak, ikastetxeetan gaitasunak ondo landu arren, badira erabilerari begira ondo landu ezin ditzaketen erregistroak eta eskolaz kanpoko jardueretan modu nahiko naturalean zaindu daitezkeenak; erreferente asko daude bertan, adibidez, hezitzaileak eta helduagoak diren parte-hartzaileak erreferenteak dira haur eta gazteentzat.



Hori guztia kontuan hartuta, Kuadrillako Euskara Zerbitzuarekin batera, “Kalean bizi-bizi” egitasmoa definitu dugu. Proiektuak bi ildo nagusi jasotzen ditu: batetik, entrenamendua egiten dituzten ume eta gazteei erreferente euskaldunen presentzia gerturatu; eta bestetik, nagusiki gaztelaniaz edo gaztelania hutsean entrenatzen duten kirol taldeekin batera lan egin euskarak presentzia gehiago izateko haien entrenamenduetan.

Lehenengo ildoko eragile nagusiak gure eskualdeko pilota eskolak ditugu: Oion, Bastida, lekora, Guardia eta Lapuebla de Labarcakoa. Oionen ez, beste guztietan euskaraz entrenatzen dute. Euskarazko erabilera indartu eta erakargarriagoa egiteko iazko udaberrian bost pilota eskolek egin zituzten lagunarteko azken jardunaldian ASPEko bi pilotarik parte hartu zuten, Jakak eta Apezetxeak. Iazko balorazioa positiboa izan zenez, aurtengo lagunarteko azken jardunaldian (ekainaren 12an, Lapuebla de Labarcan) ASPEren parte-hartzea izango dugula aurreikusten dugu. Hori beraz, proiektu honen bitartez euskarazko entrenamenduetan egiten den lana indarteko ekarpena.

Bigarren ildotan kokatzen da eskualdeko gainontzeko eskolaz kanpoko kirol eskaintza; izan ere, gure eskualdeko aisialdi eta kirol eskaintza, nagusiki, gaztelaniazkoa da. Eskaintza horretako eragilerik zabal eta egonkortuena Luzerna izan daitekeela uste dugu. Hori dela eta, epe motzean haiekin lan egitea aurreikusten dugu. Lan egiteko modua, eta ondorioz proiektu honen garapena, ez da goitik beherakoa izango, haiekin lan jardunaldi batzuk egingo ditugu

Ttiki-ttaka 2016

haien errealitatea ezagutu eta horren araberako planteamendu bat egiteko. Behin klubarekin adostuta abian jarriko diren lan-ildoak zeintzuk izango diren, bi aldeen arteko hitzarmena sinatuko dugu; hitzarmen horretan jasotakoa garatzeko Ttiki-ttaka elkarte eta Kuadrillako Euskara Zerbitzua izango dituzte bidelagun. Eskualdeko beste kirol talde edo klubekin lan egitea aurreikusten dugu.

“Kalean bizi-bizi” proiektuko bigarren ildoak abian jartzeko EBETE hizkuntza zerbitzuak enpresaren gidaritza izaten ari gara, halako proiektuak abian jartzen aditua eta aritua baita. Horretaz gain, gure eskualdeko mintzalagun proiektuaren dinamizatzailerak den Gorka ere izango dugu, bera baita “Kalean bizi-bizi” proiektuko dinamizatzailerak ere bai.

Gorkak amaitu berri du proiektu honen bigarren ildoko lehenengo fasea: gure eskualdeko ikastetxe eta Ikasleen Guraso Elkarte (IGE) guztiarekin elkartu, proiektuaren nondik norakoak azaldu eta haien atxikipena lortu. Balorazioa oso positiboa izan da; izan ere, ikastetxe eta IGE guztiak agertu dira proiektu honen alde, guztiak sustatuko dute proiektu hau. Hori horrela, proiektu honen atzean eragile asko dago: Ttiki-ttaka elkarte, Kuadrillako Euskara Zerbitzua, eskualdeko lau ikastolak, lau eskolak eta horietako IGE guztiak. Gorkak izan dituen bilera horietan bestelako gabeziak ere jaso izan ditu, oro har, proiektu honen bitartez lortuko den eragina borobiltzeko balioko dutenak: IGE-ek eskainitako eskolaz kanpokoetan euskarak presentzia gehiago izateko irizpideak, begiraleak eta formazioa. Behar horiei eta sortutako beste batzuei aurre egiteko lanean jarraituko dugu Ttiki-ttakatik eskualdeko beste eragileekin batera.

Proiektu honen hurrengo faseko helburu nagusia izango da eskualdeko klubekin zuzenean lanean hasi, haien errealitatea ezagutu eta horren araberako planifikazio erreal bat adostu, hitzarmen batean jaso eta abian jarri. Abian jartze horretan, lehen esan bezala, Ttiki-ttaka eta Euskara Zerbitzua izango dituzte bidelagun.

KIROLEAN EZ EZIK, GAZTEEKIN ERE LANEAN

Eta hala da, Ttiki-ttaka ez da gelditzen! Euskara kalera atera nahi dugu, ohiko esparruetatik atera eta horien arteko bat da gazteena. Bide horretan baina oraingoan aldebakarreko zentzua apurto nahi izan dugu eta guk haiei euskarazko aisia eskaini ordez, haiekin batera eraikitakoa edo definitutakoa abian jarri nahi dugu. Horretarako otsailaren 26an bilera batera deitu genituen Arabako Errioxako gazteak; helburua zen EBETE eta Kuadrillako Euskara Zerbitzuarekin batera planteatutako Gazteen Euskara Batzordearen nondik norakoak aurkeztu eta horrekiko haien iritzia jasotzea.

Bilerara bi gazte besterik ez zitzaizkigun gerturatu, baina kalitate handiko bilera izan zen. Kontuan hartu behar dugu bi gazte horiek sortu berri den INGUMA taldeko ordezkariak zirela. Otsailaren amaieran egindako bilera horretan elkar ezagutu izan genuen eta ikusi genuen bi aldeen helburua berdintsua zela. Hori horrela, aurreikusten dugu gure arteko elkarlanak bere fruituak emango dituela gazteen aisialdian eragiteko, gazteei euskarazko bestelako aisialdia eskaintzeko, baina gazteek parte hartuta antolakuntzan.

U rriaren 25ean, **Euskaraz bizi Nahi dut** herri lasterketa ospatu genuen Oionen. 3. edizioa izan zen honako hau. Aurten zunba saio batekin egin genuen beroketa, nola gainera! Ondoren, herriko kaleetan korrika egin genuen euskararen alde. Lasterketa bukatutakoan pintxo potea izan genuen bertsolarien koplaz lagunduta. Aurten 200 pertsona inguruk parte hartu genuen, eta herrian giro aparta egon zen.



Mintzalaguna Gure Eskualdean Bizi-Bizirik

Euskaltzeleon Topaguneak Euskal Herri osoan eta gurean Ttika-ttaka euskaldunon elkartearen laguntzaz, “www.Mintzalaguna.eus” atarian ongi ikus dezakezuen bezala, urri amaieran eta izen emateak jaso ostean, ekin genion egitasmoari “**zurekin hitz egin nahi dut**” lelopean.

Hainbat herritan, ordutegi, behar, zein adin askotako parte hartzaileak, aurrez prest zeuden mintzalaguntzaileekin harremanetan jarri bezain pronto, zeuden solasean mintzalagunak. 8 talde eta 40 lagunuen parte hartzearekin ekin genion aurtengoari.



Mintzatalde bakoitzean euskeraz aritzeko ohitura duen norbaitek jardun behar du, horiek ditugu mintzalaguntzaileak.

Eskertu behar dugu eskualdean boluntario lanetan ari diren mintzalaguntzaileen parte hartzea, berauek gabe ez genuke ez Bastidan, ez Lezan, ez Ziekon, ez Biasterin, ez Logroñon, ez Bilarren, ez eta Oionen ere mintza talderik sortzeko aukerarik izango. Eskerrik asko benetan zuoi!

Mintzalaguntzaileok, “**jarrio egokiaz goza**” arazi, hizkuntz jarduera kaletarrak eta hain “**xuxenak ez**” diren “**esamoldeak**” tartekatuz, hizkuntzaren erabileran, zuzentasunari eta **akatsei garrantzia kenduz**, edota taldean hala eskatuz gero, zuzenketak eginez lagunduko digute. Modu horretara “**galduko baitugu euskeraz mintzatzeaz lotsatzen garenon galga**”.

Ikasturtea hasteko ekintza osagarri potente bat izan genuen. Egitasmoan mintzalagunei bideratutako aurreneko ekintza osagarria “**arabako mintzalagunen topaketa**” izan genuen Arabako zenbait kuadrillatoko mintzakideak (Laudio, Araia, Gazteiz, Mendialdea eta Arabar Errioxa) Eskuernagan egun pasa egiteko elkartu ginen.

Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazigun ere, gozatu genuen txangoa, batez ere, upategia eta upategian bertan bazkalostean izan genuen “**erdaldun berrien kluba**” bakarrizketaz.

Tiki-taka 2016

Astero biltzeari uko egin gabe, tarteka-tarteka, eskualde mailan beste hainbat ekintzetara deitu dira: **“Laburbira”** euskarazko film laburren saioa, Eskuernagako mintzakideek antolaturiko **“Loreak”** filmaren emanaldi-solasaldia. Arabar errioxako mintzalaguneko taldeen arteko **“TRIBIAL LEIHAKETA”**. Berton, hilean behineko denbora tartean 10 galderez osatutako 4na galdetegi erantzun eta bidali behar ziztuzten mintzataldeek galderen bitartez puntuak lortuz edo galduz. 4 galdetegiren ostean Lezako taldea gailendu da eta udaleko euskera zerbitzuak urdaiazpiko goxo bat irabazi dute irabazleek.

ARABAKO ERRIOXAKO TRIBIAL LEIHAKETA		4. GALDETEGIRI ERANTZUNAK ETA SAILKAPENA													
TALDEA	Puntuazioa galderako														GUZTIRA
	1. galdera	2. galdera	3. galdera	4. galdera	5. galdera	6. galdera	7. galdera	8. galdera	9. galdera	10. galdera	IV. Galdetegia	III. Galdetegia	II. Galdetegia	I. Galdetegia	
Eskuernaga											-	8,8	8,8	8,8	26,4
Expatak											-	-	6,6	7,8	14,4
Eltziego	+1	+1	-	+1	+1	-0,2	+1	+1	+1	-0,2	6,6	6,1	8,8	6,6	30,1
Oion (ostegunak)	+1	+1	+1	+1	-0,2	-0,2	+1	+1	+1	+1	7,6	-	6,4	7,6	21,1
Biasteri	+1	+1	+1	+1	-0,2	-0,2	+1	+1	+1	+1	7,6	8,3	7,6	7,6	31,1
Leza	+1	+1	+1	+1	-0,2	+1	+1	+1	+1	-0,2	7,6	10	7,6	7,6	32,8
Bastida											-	9,5	-	5,4	14,7

Erantzunak:
Gogoan izan zeintzuk diren puntuazioa emateko irizpideak: ondo erantzundako galdera bakoitzagatik, puntu bat jasoko du taldeak. Gaizki erantzundako galdera bakoitzagatik 0,2 puntu kenduko zaizkio taldeari. Erantzun gabeko galderak ez diote punturik kenduko taldeari.

1. Irratia
2. ...hainbat aburu
3. irakurri eta gozatu
4. Bilak
5. Lapuebla de la barca
6. Diezaiola
7. Bastida, jubilatuen etxea eta liburutegia
8. Irailean
9. Gu ta gutarrak
10. Herensugeak

Ikasturtea amaitzeko, Mintzalaguna egitasmoa Euskal Herri mailako egitasmoa denez Topaguneak deituta eta duela 25 urte egin zen gisan, Atarrabian **“mintza eguna 2016”** antolatu da eta bertaratuak egitarau oparoaz gozatzeko aukera izan zuten: autobusez joan, ongi-etorria, txangoa, bazkaria edo musikaz gozatu.

Egitasmoa sendotu eta parte hartzeak euskararen erabileran duen garrantziaz hitz egin digu Lantziegokoa den baina Biasteriko taldean aritu den Pili Martelesek: **“Ondo pasatzeaz gain, Euskeraz bizitzeko aukera eskeintzen dit mintzalaguna egitasmoak, gaizki hitz egiteko lotsa galdu... seme-alabekin euskaraz aritzeko moduan nago orain, eta jariora landu nahi duen horri parte hartzeko gomendatuko nioke”**.

Erabilerak hizkuntzaren iraupenean duen garrantziaz ohartarazten gaitu aurtengo mintzaeguneko leloak.

365 egunez eraBiziz!

Johanes Aztiaren Ondorengoak Euskaraz Mintzo Dira

Gogoan dut duela urte batzuk igande eguerdirako plana proposatu zidatela lagun batzuk: Bargotara, sorginkeria azoka ikustera. Baietz esan nuen, baina planak ez ninduen guztiz betetzen; izan ere, ordurako, erdi aroko azokak behin baino gehiagotan ikusiak nituen eta aspertuta neukaten. Herria bandera batzuekin dekoratuta; herritarrak mozorrotuta eta herrian paseoan, besterik gabe; arrano batzuk ikusgai, egingo nuke berberak direla azoka guztietan; pastelak eta likoreak salgai... Hortaz, plana asegarriago gerta zekigun, loarrera igo ginen goizean, eta mendi tontor dotore horretan hamaiketakoa eginda, Bargotarantz jo genuen. Mendi buelta batek gorputzean sortzen duen sentsazio eder horrekin joan ginen herrirantz. Hala ere, ez nuen, nik behintzat, ezer berezirik espero.



Bargotak Iparraldean, Torres del Rio eta Esprontzeda ditu; hegoaldean, Mendabia; ekialdean, Armañanzas, eta, mendebaldean, Viana, Aras eta Azuelo. Egun 300 biztanle inguru ditu. Urtez urte, poliki-poliki, biztanleak galdu ditu, 1950ean goia jo zuenetik; urte hartan, 792 biztanle zituen. Beti herri izan bazen ere, 1219an izaera hori galdu zuen eta Vianaren barne utzi zuen Antso Azkarrak, Gaztelaren aurkako muga sendotu nahian. Inoiz ez zuten begi onez ikusi bargotarrek lotze hura, eta eskatu eta eskatu, azkenean, 1818an lortu zuen berriro independentzia herriak. Bargotak XVI. mendeko Johanes aztiari zor dio hain herri ezaguna izatea. Fernando Amezketarrarenak baino ezagunagoak dira aztiaren abenturak

eta magiak Bargotan, inguruko herrietan eta leku asko eta askotan. Herriko apaiza izan zen, baina deabruarekin sinatua zuen ituna. Bi lekutan aldi berean ikusi zuten; hodei baten gainean bidaiatzen zuen, ekaitzak sortzen zituen...

Iritsi ginen, bada, herrira, eta espero ez genuen ezusteko pozgarri bat izan genuen. Festa-lekura sartzean mahai bat zegoen eta bertan jendea mozorroturik informazioa ematen. Hurbildu ginenean, gaztetxo batzuk etorri zitzaizkigun eta informazio-papera euskaraz nahi genuen galdetu. Ahoz eta idatziz, bietan, jaso genuen informazioa euskaraz. Poztekoa, benetan. Ez da sarriegi zaintzen modu horretan euskara eta euskal hiztuna Arabako Errioxako herrietan, antolatzaile euskararen inguruko erakunde bat ez bada, eta are gutxiago Bargotarekin muga egiten dutenetan.

Bigarren ezustekoa festaren kale nagusian sartzearekin batera iritsi zitzaigun: herriaren eta herritarren parte hartze goxoa. Han arnasten zena ez zen nik aurretik ikusitako erdi aroko azoketako giroa. Baziren litxarrerria, eta bestelako jaki-saltzaileak, baina beste zerbaitek sortzen zuen giro bereziki atsegina: herritarrek beren etxeetako behebarruak irekita zituzten, eta bertan zeuden mozorrotuta nola zegoen dekoratuta erakusten eta istorio kontatzen, ostatu batean burua erantzi zuenekoa... Behebarru, garaje eta txokoetan denetatik zegoen, detaile txiki eta handiz josita, erratzen aparkalekua, madarikazioen gela, botika... dena herritarrek sortua. Baziren gauza handiagoak ere, esaterako, inkisizioaren tortura-gela. Gustura



Tfiki-ffaka 2016

ikusien genuen guztia, eta bertakoek esan ziguten Akelarrea da polita ea hurrengo urtean ikusten duzuen. Momentu hartan baietz pentsatu genuen, ikusiko genuela, alegia.

Auskalo zenbat urte pasa diren igande eguerdi hartatik! Baina iaz, bai! lazko uztailean Bargotara Akelarrea ikustera joatea erabaki genuen. Aurretik joan beharra omen zegoen ondo ikusteko lekua hartzeko, eta arratsaldean joan ginen Akelarrearen aurreko antzerkia ere ikusteko aprobetxatzeko asmoz. Han geunden, Bargotako plazan, oholtza ondoan, eta izugarri polita izan zen antzesleen sarrera plazan; kalean behera etorri ziren gurdietan eta abarretan Aker, Endregoto sorgina, Johanes bera, jende pila bat paperean erabat sartuta, musikariak... Eta igo ziren oholtzara eta hasi zen antzerkia. Hura sorpresa! Ama semearekin euskaraz, bertso bat euskaraz, bigarren bertsoa ere bai, hirugarrena, madarikazioa ere euskaraz... Euskararen presentzia zaintzeko ahalegina nabaria zen, gustagarria eta txalogarria.



Ondoren Akelarrea izan zen, eta euria.

Lehenbiziko hiladakoek aterkiak ireki zituzten eta atzeraxeago geratu ginenok zirrikietatik ikusitakoarekin konformatu behar izan genuen. Han izan ziren, Akelarrean, Gaueko, Anbotoko Mari, Basajaun, Zezen Gorri... Pozgarria izan zen euskal pertsonaia mitologikoak Bargotan zebiltzala ikustea.

Aste osko egitaraua izaten dute Bargotan Sorginkeria Astea deitutako honetan. Antzerkia eta Akelarrea Garañango herriko antzerki taldeak antolatzen ditu; herriko 35 lagun izan ziren 2015eko uztaileko antzerkian; horietako 12, umeak; horiez gain,

16 musikarik ere parte hartu zuten. Iaz, Johanesen ibilerak jasotzen zituen haur-liburuxka bat argitaratu zuten, 1000 ale gaztelaniaz eta beste 1000 euskaraz.

Garañango elkarteko kide eta euskaltzalea den Mikel Fernandezekin izan gara. “Herritar batzuei antzerki bat egitea bururatu zitzaigun. Gidoi bat idatzi eta antzeztu, baina, sorgikeriaren asteari begira, herriko batek zuzendari bat kontratatzea proposatu zigun eta horrela egin genuen. Gidoi hura han geratu zen eta ordutik zuzendari-gidoilari horren esanetara gaude. Zalantzarik gabe asmatu genuen. Zuzendari hau alemaniarra da baina badu euskal gaietarako, euskal mitologiarako eta euskerarako sentsibilitatea... Taldekideek ere bai.”. Duela lau hilabete hasi ziren aurtengo lehen entseguekin. “Urtero-urtero berrikuntzaren bat egiten dugu: gidoian zerbait aldatu, pertsonaia berriren bat sartu”. Herritarrak arduratzen direla guztiaz esan digu Mikelek. “Herrian dauden elkarte edo talde bakoitzetik kide batek edo bik hartzen dute parte Sorginkeraren Astearen antolaketa batzordean, 10-12 bat pertsonak. Herria atontzeko, girotzeko aste bat lehenago hasten gara eta ia herri osoak hartzen du parte; etxeko txokoak zabaltzen dituztenek lehenago hasten dira, hilabete baino gehiago behar izaten dute”. Eta euskara? Nola lortu duzue hainbeste sartzea? “Herrian betidanik, edo ni bertan nagoenetik behintzat, beti egon da euskararekiko errespetu eta bultzada hori. Herriko kaleen izenak adierazten dituzten karteltxoak elebidunak dira. Sorginkeraren Jai hau baino lehenago ere, herriko beste jaietako egitarauak elebidunak izaten ziren. Ez dago euskararen aldeko batzorde zehatzik, baina bai nahiko normaltasun maila handia nire ustez. Eta hor dago askotan gakoa. Euskara erabiltzea, edo pixka bat erabiltzea, “arraroa den zerbait” izatetik normala izatera igarotzea. Bargotan euskara entzuten da, gutxi bada ere, edo batek nahiko lukeena baino gutxiago bada ere”.

XII. urtea du 2016koa Johanes Aztiaren omenez antolatzen den Sorginkeria Asteak. Orain arte bezala jarrai dezatela euskara zaintzen eta orain arte bezain ondo joan dakiela aste osoa!

Pasadizoa


Igandea zen. Abuztua, auskalo zein urtetakoa, baina beroa. Jendea elizan omen zegoen, meza entzuteko zain, baina apaiza falta. Halako batean, hor agertu omen zen kapa zuri-zuri zuela. Denak aho bete hortz zituela, kapa erantzi, astindu eta: “*Nola ari duen elurra Oka mendietan*”. Harrituta egotetik beldurtuta egotera pasatuta, mezarik gabe makina batek ihes egin omen zuen handik.

ANTZERKIKO BERTSOAK

Eszenetakoak:
Bargotako Johanes
Bai gizon handia
Denek miresten dute
Bertako aztia
Ibiltzen dituen
Truko ta magia
Istorioak dira
Txit barregarriak
Eta oraindik ere
Maite du herriak

Pobre dadukat bihotza eta
Pobre dadukat tankera
Familiak ere badu noski
Nire sentimendu bera
Dirudun hori etorri zait gaur
Dudan apurra kentzera
Laguntza eske etorri naiz ni
Gure aztian etxera

Denok gustoko dugu
Parranda eta jaia
Ederki pasatzeko
Heldu da garaia
Dantzan egun guzian
Hori ez da zaila
Bargotan badakigu
Nola egin jaia
Denok gustoko dugu
Parranda eta jaia
Ederki pasatzeko
Heldu da garaia



Euskararen normalizazioan lan egin dugun guztiontzat eredu, ondo egindako lanaren adibidea. Hasteko interesgarria litzateke ezagutzea non dagoen Aiara eskualdea.



Aiaraldea edo **Aiarako kuadrilla** da Araba osatzen duten zazpi kuadrilla edo eskualdeetako bat, probintziako ipar-mendebaldean eta izen bereko haranean kokatua. Udalerri hauek hartzen ditu: Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio eta Okondo. Guztira 328,12 km² ditu (Arabaren%10), eta 34.231 biztanle zituen 2010ean (Arabaren%11). Nerbioi ibaiaren arroko herriak biltzen ditu batik bat.

Argi gelditzen da Gasteiz hiriruburen ondoren eskualde hau dugula populatu eta industrializatuena. Horrekin guztiarekin batera, eskualde horretan euskararen normalizazioaren aldeko lana ez da atzokoa, ikastolak, gau-eskolak, euskaltegiak... eta 90eko hamarkadan Euskara Elkarteak euskararen normalizazioan zeuden hutsuneak ikusi eta lanean

hasi ziren. Horrela egun hau da bertako egoera: Belaiki Elkarte Baranbion, Basalarrina Laudion, Hogeitalau Elkarte Errespalditzan. Elkarte hauek eta euskararen aldeko hainbat talderen artean Aiaraldea.eus proiektu anbiziotsu bezain freskoa erditu dute aurtengo urtean.

Zer da Aiaraldea.eus?

Aiaraldea Komunikazio Leihoa Elkarteak 2010ko apirilaren 17an jaio zen, euskarazko komunikazio jarduerak sustatzeko helburuarekin. Bide horretan jarritako lehenengo harria www.aiaraldea.com webgunea izan zen. Aiaralde osoko 50 lagunek ekarpen boluntarioaren bitartez eguneroko tokiko informazioa ahal beste uskarrietan sarreratzen hasi ginen: bideoetan, argazkietan, audioetan... Orozkotik Okondora eta Urduñatik Arnakudiagara, tarteko 9 udalerritan jasotzen diren eguneroko bizitzako istorioak biltzen ditugu teknolgoia berrien azken puntako balibideak erabiliz: euskaraz eta aiaraldearrontzako. 2011 urteak utzitako bisita datuak ezin pozgarriagoak dira: 179.000 bisita jaso zituen webgunek, hilerio ia 8000 bisitari bakar. Duela hiru urte sortutako uhina, hedatzen ari da. Eta, Aiaraldea irratiarekin, gehiago zabalduko.

Zeintzuk alor jorratzen ditu?

Albisteak, agenda, bideoak, kultura lehiak, argazkiak, elkarrizketak, egunkaria, irratia, komunitatea eta iritzia. Aiaraldea irratia Aiaraldea Komunikazio Leihoak sortu duen euskara hutsezko internet irratia da. Aiaraldea Komunikazio Leihoak euskararen normalizazioa du helburu. Horregatik, komunikatzeko leiho berri bat zabalduz euskararen uhinak hedatu nahi ditu, hizkuntzari komunikabide eta baliabide gehiago eskainiz.

Bukatzeke esan, Aiaraldea.eus egiteko ezinbestekoa dela Euskara Elkartearen lanarekin batera, eskualde horretako udalen, elkartearen eta hainbat enpresen laguntza proiektu honek bizirik irauteko. Bejon deizuela Aiararroi.

Jatorrizko izendapen guztiak desagertuko lirateke Europarekin negoziaketan duten TTIP ituna onetsiz gero

“Gauzak zertan diren argi edukitzea erresistentzia mota bat da”. (Serge Halimi).



KORPORAZIOEN KONSTITUZIOA

Nork kontrolatzen du gaur egungo mundua? Bihar arerio maltzurra bonbardatu behar izango bagenu, komeriak pasako genituzke, nora jo jakin gabe: ez baitakigu etsaia non bizi ote den, izena nola ote duen ere ez, soil-soilik itzalpean ibili ohi dela... Badakigu, jakin, Gobernu guztiek, batekoek zein bestekoek, men egiten diotela eta biktimak munduko herriak garela. Hortik aurrera, ordea, mamuen kontra ariko bagina bezala sentitzen gara sarritan.

Orain bederen badakigu Konstituzio propio moduko zerbait taxutu nahi duela: TTIP izenekoa (Atlantikoz gaindiko Merkatal eta Inbertsio Ituna, ingelesezko siglen arabera). Amerikako Estatu Batuetako (EEBB) Gobernuak eta Europako Batasuneko (EB) burokratek eztabaidagai dute 2013ko udaz geroztik, baina, hori bai, negoziaketan edukiei buruzko sekretukeria zorrotz inposatuta. Nolanahi ere, benetako negoziatzaileak industrien lobby-ak direla esango bagenu, bete-betea asmatuko genuke.

Azken batean, merkataritzaren inguruko joko-arau berriak onartzea da helburua, eta, inondik ere, kapitalismoak errealitate osoa kolonizatu duen honetan, ondorioak soilik ekonomian gauzatuko direla pentsatzea motz samar gelditzea da: eguneroko bizitza kaltetuko litzateke, giza harremanik funtsezkoena bera ere bai, enplegu baldintzak hasi eta egunean hiru aldiz jaten dugunaren osaeraraino. Goitik beherako aldaketa. Ez al dugu gogoan zer-nolako astindua erakarri zigun eguneroko zirrikitu orotan, adibidez, euroa hil eta herio indarrean ezartzeak?

Korporazio handiak dira munduaren jabeak, hori badakigu; baina areago jakin behar dugu: besterik ez, gaur egungo munduaren menperakuntza zer-nola gauzatzen den ulertu beharra daukagu noizbait zeozer onbideratu nahi izanez gero. Horixe dugu jomuga TTIPen aurkako Arabako Errioxako Plataforman (gurekin bat egiteko: ttpip.no.arabako.erioxa@gmail.com).

HAU DA GERRA!

Paisaia lanbrotu honetan, argi dagoen ia bakarra zera da: akordioa onartuko balitz, txikitu egingo lirateke azken bolada honetan Europan osoro murriztutako gizarte eskubide eta babesak. Zergatik? TTIP bezalako hitzarmenen izaerarik behinena ohi da arauen arteko armonizazioa, eta, gure kasuan, Europa EEBBen arabera egokituko litzateke eta ez alderantziz, beti azpitik egiten da-ta. Esan gabe doa ezinezkoa izango genukeela gure lurretan Monsanto enpresaren transgenikoak ugaritu edo Kanadiako enpresa batek gure lurretan fracking egitasmoak abiatzea saihestea.

Ipar Amerikako eliteen esanetara geratuko ginateke, oro har. Bertan datza azken urteotan mota bereko itunak mamitzeko ekimen estrategikoa (izan ere, TTIPaz gain, CETA izenekoak Europan eta Kanadaren arteko merkataritza arautu nahi du, eta, gainera, EEBBek eta Ozeano Barearen inguruko dozena bat Gobernuak, Japonia erraldoiak barne, TTP delakoa onartu zuten iaz). Zer dela eta, itunen emana?

Munduari behako bat emanaz gero, nabaria da EEBBak buru-belarri ari direla jokaldi geopolitiko batean. Zio nagusia da

mende berrian gora egin duten BRICS herriei, batez ere Txinak eta Errusiak lortutako goranzko hegemoniari aurre egitea. Aditu askok diote Ipar Amerikaren asmoa, azken buruan, Txinari gabeko merkatal esparru sendoa osatzea dela. Hau da gerra komertzial gupidagabea!



‘DOC’? ZER ‘DOC’?

Iparra non daukagun ere ez ohi dakigula berresteko pasadizoa gertatu da denboraldion. Gogoan duzue ika-mika beroa izan zela jatorrizko izendapenen auziaren harira. Arabako Errioxako ardoak, antza, ñabardura propio ugari izanda, izen propioa ere agertzeko eskubidea du, arrazoi osoz eduki ere.

Bego. Baina kontua da, bada: TTIP ituna onartuz gero, kito ‘DOC Rioja’ delakoa, kito ‘Arabako Errioxako ardoak’ balizkoa, eta kito den-dena! Aipatu akordioak zapalgailu baten gisara jokatuko bailuke, Europako jatorrizko izendapen oro pikutara bidaliz.

EEBBetako ordezkariak garbi utzi dute negoziaketaren zero minututik merkatu esparru berrian ez legokeela inongo izendapenik. Espainiako Kontseilu Arautzaileak adierazi dute “Europak ezagutzen dituen jatorrizko izendapen kalitatezkoak marka komertzial generikoak” besterik ez direla ozeanoz bestaldeko erraldoian: “Han litekeena da Californiako jerez bat do Oregongo oportu bat topatzea”. Bistan dago EEBBetako negoziatzaileen asmoa dela Ipar Amerikako korporazioei, esaterako, Errioxa ardoa ekoiztu eta salduko dutela ahalbidetzea.

Gauzak horrela, auzia ez da EEBBetako biztanleek Arabako Errioxako ardo bapo edango dutela (hitzarmenaren aldekoek esportazioa ikaragarri haziko dela argudiatzen dute). Ez: arriskua da sektore osoa, ardogintza bera, mahastizaintza zein nekazal eredu oso bat irentsiko dutela akaso.

GREZIAREN ONDORENGOA

Konforme, EEBBetako korporazioak azalean kabitu ezinik dira probetxu handiko etorkizunari begira. Baina ziztuan datorkigun galdera zera da: zer irabaziko ote du Europak auzi honetan? Gakoa, berriz, zer baino gehiago, zeintzuk irabaziko duten da... Europako austeritatearen sufrikarioa eragin duten elite berdinek ere negozio eredu mardula ehundu nahi

Tiki-taka 2016

dute-eta, behin-betiko pagotxa! Munduko ekonomia zentraletako eliteak elkarren arrimuan ari dira, batere disimulurik gabe.

Alabaina, operazio honek ulertu beharreko beste hainbat berezitasun ditu Europaren ikuspegitik. Silvia Federici feministaren ustetan, kontinenteko klase kapitalistak nazioarteko egiturak edo ikustezinezko mamu horiek baliatzen ditu “bere kabuz diziplinatu ezin dituen langileak obediartzeko”. Troikak edo Nazioarteko Monetari Fondoak Europako gure gizarte erkinduetan urtetan eragindako txikizioen segida izango litzateke, beraz. “Eta ‘ez gara gu, Bruselas baizik’, esango dute gero, arazorik izanez gero”. Politika egiteko era jakin bat azken bururaino eramatea dugu TTIP akordioa.

Dagoeneko jakina da, bestalde, eraso berri honek zerikusi zuzena daukala herrietako neurri erabakigarriak Estatu gaindiko entitateek hartzeko prozesuarekin, herri subirautzaren lapurketarekin, hain zuzen. Grezian duela urtebete gertatutakoa dugu akorduan. “Kontua da Europako Batasunak funtzionatzen duen era, erabakiak herriengandik urrun hartzen direlako”, salatu du aurten Yannis Varoufakisek

INKESTA MODUKO BAT

Gure ustez, itunak atzea ekarriko digula pentsatzea ez da gehiegikeria. Baina baten batek oraindik zalantzak baditu TTIP ditxosozkoari ezezko borobila eman eta borrokaren bidari lotu beharri dagokionez, hona hemen galdera zenbait.

Lehen galdera. Zuk, irakurle, zure bizitza pribatuan, onartuko al zenuke urteak joan eta urteak etorri beste batzuek erabateko sekretuan eta azpikeriaz negoziatutako zerbait?

Bigarrena. Azken urte latz hauetan Europan aspaldiko politika ekonomikorik latzenen ondorioz estu eta larri bizitera eraman gaituzten politikari berdinen esku lagako al zenuke negoziaketa hori? Troikaren jukutrien gatibu otzanak izango gara oraingoan ere arpilaketari eutsi ahal izan diezaioten?

Hiru. Amore emateko prest zaude Californian edo Las Vegasen Arabako Errioxako ardoaren imitazio hutsa den produktua saldu ahal izan dezaten? Edo, beste era batera begiratuta: behin kalitatezko ekoizpena nortasun zeinu bihurtzeko makina bat lan egin eta gero, orain lasai ederrean geratuko al gara nekazal eredu horren suntsiketaren aurrean?

Eta lau. Mundua gerran badago, guda ekonomiko batean baina, azken batean, gudan, zer dela-eta sartuko gara gu merkatal gerra batean, nori eta EEBBetako korporazioei laguntzeko? Erantzunak airean dabilta; bai eta gure eskuetan ere.

Rosa Gil Gaztelurrutia (TTIPen aurkako Arabako Errioxako Plataformaren izenean)





Patxi Zabaletaz hitz egiten dugunean ez da aurkezpen gehiegirik egin behar zonaldean aski ezaguna baita. Halere, bere bizitzan sakontzeko parada emango dizue berarekin izandako elkarrizketa honek.

Kaixo Patxi. Kontaiguzu zure bizitzaz zerbait eskualdera etorri baino lehen.

Kaixo bai. Ba Legazpin jaio nintzen duela 78 urte. Hortik urte batzuetara Lekainera joan nintzen. 63an apaiztu nintzen baina 82an utzi nion apaiza izateari, bi erabaki hauek oso konbetntzitutak hartu nituen eta ondo egin nuela pentsatzen jarraitzen dut. Donostian, Balmasedan, Salamancan eta Agurainen ere boladak eman ditut.

Noiz eta nola etorri zinen gure Arabar Errioxara?

Joseba Errekarterekin harreman handia neukan, eta berak proposatu zidan Arabar Errioxara etortzea hemen euskal kultura

zabaltzeko aisialdi eremuan. Horrela, 1983. urtean Lapueblara etorri nintzen bizitzera. Ilusio handiz etorri nintzen baina hasiera ez zen samurra izan. Etakidea izatea leporatuta Lapueblan atxilotu ninduten eta Gasteizera preso eraman ninduten. Errugabe nintzela konturatu ondoren askatu ninduten baina tortura eta mehatxuak jaso nituen Arabar Errioxara ez bueltatzeko. Hala ere, hona bueltatu nintzen, oraingoan Oionera bizitzera. Labastidan, Lapueblan, Lantziegon eta Oionen euskal dantzak, txistua eta pilota begirale bezala aritu nintzen bost urtez. Hasierako beldurrak gaindituta nire lanaz asko disfrutaz hasi nintzen. Txikitatik euskal kontzientzia handia izan dut, pentsa ezazu, diktaduran klandestinitatea bizi izan dudala eta horren ostean euskal kultura zabaltzeak harrotasun handia ematen zidan. Horretaz gain, irakaskuntza beti gustatu izan zait, beti esango dut (eta hau elkarrizketan behin baino gehiago esan zuen): “ gehiago jaso izan dut ikasleengatik nik eman diedana baino”.

Bost urte horiek aisialdian eman eta gero Lapueblako ikastolan historiako irakasle moduan hasi nintzen. Oiongo ikastolan ere musika klaseak ematen nituen. Garai hartan aldaketa nabarmena nabaritu nuen. Aisialdian giro erlaxatuagoa zen baina ikastola barruan notek, ordutegiek... tentsio puntu handiagoa ematen zioten egoerari.

Zer nolako giroa topatu zenuen Arabar Errioxan euskararekiko?

Urte oso intentsoak izan ziren. Diktadura bukatu berria zen eta euskaltzaleak ilusioz beterik zeuden, ilusio handia bai, baina traba handiak ere. Logroño ondoan egonda diktaduraren arrastoak oraindik somatzen

nituen. Eskualdeko guraso batzuen jarrera ere ez zen positiboa izan. Euskal kultura ETArekin lotzen zuten batzuk. Komunikabedeak irudi hori zabaltzeaz arduratu ziren, batez ere Aznarren legealdian. Garai hura gogorra izan zen euskalzaleentzat. Euskal kulturaren kontrako kanpaina negatibo horrek ikastolen izen ematean beherakada suposatu zuen.

Gaur egun zertan zabilta?

Gaur egun, Ekuador (Kito) eta Oionen artean ematen dut bizitza. Emaztea Guaiakilikoa denez han pasatzen ditugu boladak.

Hango bizimodua gustuko duzu?

Han oso gustora bizi naiz. Asko irakurtzen dut eta ez naiz aspertzen. Euskal kultura faltan botatzen dut. Ekuatorreko kostaldean gaudenez euskal abizen asko daude baina zoritxarrez ez dago euskal etxerik. Eitb ere faltan botatzen dut, saiakera bat egin nuen Ekuatorren seinalea eman zezaten baina ezer ez zean gelditu zen.

Horrenbeste urte eta gero pasadizo asko izango dituzu ezta?

Kar kar kar, badaude bakar batzuk bai. Hasteko farregarri bat kontatuko dut. Oiongo dantza taldearekin Lantziegora joan nintzen bertan parte hartzeko. Emanaldia baino lehen ardo tragoz dotore jarri nintzen. Gure dantza ikuskizuna hasteko prest ginen, dantzari guztiak plaza erdian eta ni txistua eskutan. Txistua jotzen hasi nintzen baina ez nuen nota bakarra ere asmatu! Dantzariak guztiz galdua zeuden eta enparantza osoa farrezka. Beste saiakera bat egin nuen baina ezinezkoa zitzaidan doinua jarraitzea. Saioa bertan behera utzi behar izan genuen.

Ahaztu ezin dudana beste oroitzapen bat honako hau da: ikasleek erderaz hitz egiten zidatenean nik erderaz ez nekiela erantzuten nien. Gehienek sinisten zuten

eta euskaraz hitz egiten zuten nirekin. Gaur egun nahiz eta urteak pasa izan oraindik ere euskaraz hitz egiten didate eta niretzat poztasun handia da.

Badaukat pasadizo negatibo bat ere. Oionen makil dantza erakusten ari nintzela bi ikasleren artean gatazka bat sortu zen. Ni banatzera joan nintzen baina makilak ere nituenez Xabi Fernandezi min egin nion. Hemendik barkamena eskatzen diot.

Klaseko jarrera ebaluatzeko metodo berezia zenuen ezta?

Kar, kar, kar. Txistuarekin notak jartzen nituen bai. Erabiltzen nituen notak hauek ziren: Mi, Sol, Do, Mi eta Sol. Jarrera bikaina bazen guztiak jotzen nituen eta kaxkarra bazen bakarrik lehenengoa. Metodo hau ikasleak motibatuzko erabiltzen nuen. Beti eman diot garrantzi handia jarrerari. Ikasle batek zailtasuna bazituen baina jarrera ona bazuen, ez zuen arazorik izan arloa gainditzeko.

Kalifikatzeko sistemaren kontra agertzen naiz argi eta garbi. Konpetitibitatea bultzatzen du bai ikasle bai gurasoen artean.

Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna gure inguruan?

Euskararen ezagutza maila izugarri handitu da hona etorri nintzenetik, baina oraindik lan izugarria gelditzen da egiteko. Profeten esperantzaz etorri nintzen hona eta badakit emaitzak lortzeko urte asko behar direla. Inguruan mila zailtasun ditugu eta oraindik jende askok ez daki hizkuntza. Hau hobetzeko musika tresna polita izan daitekeela uste dut. Musikaren bitartez hizkuntzaren erabilera hobetzeaz gain, sentimenduak ere jorratzen baitira. Horretaz gain irudimena ere behar dugu euskararen alde espazioak lortzeko.

Nola definituko zenuke zure burua?

Ba pertsona arrunta naiz, ezker abertzalekoa eta kirola oso maiteko dudana. Irakaskuntza asko gustatu izan zait

Tiki-taka 2016

eta gauza guztien gainera euskal kulturaren defendatzaile eta sustatzaile amorratua.

dudalako. Asko gozatu dut eta ikasleengandik nik emandakoa baino askoz gehiago jaso izan dut.

Zerbait gehiago gehitu nahi duzu?

Hemendik ikastolen munduari eskerrak eman nahi dizkiot mundu propio bat topatu



denborapasak

txisteak



-Ama, gaur ez dut ikastolara joan nahi.

-Zer gertatzen zaizu ba, Aitor, seme maitea?

-Ba, hasteko logalea daukat, gero, aspertzen naizelako eta azkenik nire ileaz barre egiten dutelako.

-Badakizu zer esaten dizudan? Joan behar zarela. Lehenengo arrazoia: zure eginkizuna delako, bigarrena 35 urte dituzulako eta hirugarrena ikastolako zuzendaria zarelako.

Badoa neskabila bat Bilboko kaleetan zehar eta topatzen duen mutil handi bati galdetzen dio:

-Aizu, esango zenidake mesedez zenbat falta zaidan metrora iristeko?

-Ba..., hamar bat zentimetro edo.

Nola esaten da argala txineraz?

Fla-ku-txing

Haur batek dio amari ikastolatik etxera joandakoan:

-Ama, bi notizia dakartzat zuretzat. Lehenengoa oso ona da: matematikan 10 atera dut.

-Oso ongi, oso ongi! Eta zein da bigarren notizia? -galdetzen dio amak.

-Ba, lehenengo notizia gezurra dela.

Irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketa.

-Zenbat hezur dauzka zure gorputzak?

-208, jauna - erantzun du ikasleak.

-Burugogorra! Ez al nizun esan atzo 207 hezur bakarrik dauzkala giza gorputzak?

-Bai, baina ... gaur oliba hezur bat irentsi dut.



Bi mutil zeuden eta esan zuen batek: - Nire osaba bati, gerran egon zenari, tiroa begian jo zioten eta kristalezko begi bat jarri behar izan zioten. Orain begi ona estaltzen du eta kristalezko begiarekin dena ikusten du. Orduan beste mutilak esaten du: - Ba, nire osabari, gerra berean egon zenari, hatz txikian tiro jo zioten eta orain hatzaren tokian behi ditiburu bat dauka. Tabernara joaten denean kafe bat eskatzen du eta ditiburutik esnea botatzen dio kafeari. - Hara! Hori ikusteko dago! - Bai, zure osabaren begiarekin!


Gurutzegrama






Asmatu hitza definizioa kontuan hartuz. Zein da hitz ezkutua?

U	Mahatsa ardoa bihurtzen den lekua
U						Urtero jasotzen den mahatsa
S		Sagarrarekin egiten den edaria
K				Ardoa kontserbatzeko den lekua
M			Mahastietan dagoen fruta
A					Mahatsarekin egiten den edaria
T	Mahatsa jasotzeko erabiltzen den makina

Hitz ezkutua: _____



Hieroglifikoak



Zer erabili zenuen garbitzeko?

Non dago aita?

Non ikusi duzu hori?

Erantzunak: zapia, sukaldean, liburuan

Hizki Zopak

Hizki-zopa honetan Arabar Errioxarekin erlazionatuta dauden zazpi hitz aurkitu beharko dituzu. Hona hemen laguntza:

Oion ondoan dauden bi herri txiki. Kripango Mendia. Mahatsondoek osatzen dutena. Dantza ezaguna. Arabar Errioxako aldizkari euskalduna. Arabar Errioxan asko edaten den edaria.

D	N	B	K	K	J	J	Y	L	O	R	A	T	E	A	S	F	G	T
O	K	P	G	A	P	P	U	J	P	K	H	U	Y	F	G	K	J	T
K	O	O	O	O	R	R	I	M	N	O	L	O	J	O	I	K	F	I
I	T	D	R	O	A	H	J	A	R	D	O	A	K	E	N	A	I	K
L	A	B	R	A	Z	A	I	H	B	O	L	A	I	L	P	I	O	I
Q	W	E	E	R	T	Y	U	A	I	O	P	A	S	O	D	F	G	T
H	J	K	B	L	Ñ	Z	X	S	C	V	B	N	M	U	Q	M	B	T
G	X	E	U	E	K	G	D	T	X	U	L	A	L	A	I	F	H	A
Ñ	G	F	S	R	T	Y	E	I	W	U	I	N	B	F	Y	U	N	K
C	Y	K	T	F	S	L	Ñ	A	N	S	A	N	T	I	R	S	O	A
O	P	I	O	N	J	F	G	H	G	E	I	Y	M	S	O	P	Ñ	W


HERRI KIROLAK: KARRETA SOKATIRA AIZKORA LOKOTXAS ESKUPILOTA TXINGAK TRONTZA

S	O	K	A	T	I	R	A	D	V
K	X	T	F	A	G	A	I	H	K
A	F	H	R	E	R	T	X	A	B
R	L	O	K	O	T	X	A	S	T
R	U	C	K	M	N	O	I	L	X
E	L	Z	F	E	L	T	U	K	I
T	I	P	I	T	Z	E	Z	G	N
A	Z	A	H	D	P	A	R	A	G
E	S	K	U	P	I	L	O	T	A
H	T	R	O	N	M	Z	A	G	S



Asmakizunak

1. Asmakizuna



Zein da kotxearen azpian dagoen zenbakia?

Erantzuna: Zenbakiak alderantziz begiratzen badituzu erantzuna 87 dela konturatuko zara.

2. Asmakizuna:

Bi ama eta bi alaba, ondo zenbatzen baduzu, ez dira lau, hiru baizik. Nortzuk dira?

Erantzuna: amona, ama eta alaba

3. Asmakizuna


Bi hanka izan arren ezin dut biderik burutu, baina gizon ni gabe ezin da inon aurkeztu. Zer naiz?

Erantzuna: Prakak

4. Asmakizuna

Zein da 4 letrako hitza, zer 3 letra dauzka, baina 5 letrekin idazten da, batzuetan 9 letraz osatuta dago, bestalde 8 ditu, eta tarteka 7 dauzka.

Erantzuna: Zein, zer, baina, batzuetan, bestalde eta tarteka.



non gogoa, han zangoa



Tiki-taka 2016



Ttiki-ttaka 2016





tiki
taka



*Bazkide izan nahi baduzu, behealdeko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera. Kuotari dagokionez, 20 euro dira urtean eta gazteentzat borondatea. Honen truke bidaliko dizugu aldizkaria, informazioa eta ekintza eta bileren berri. **Egin zaitez bazkide!***

Deiturak _____ Izena _____

Jaioteguna _____ Helbidea _____

Herria _____ Pta.Kodea _____ Tfnoa _____

Banku-Aurrezki kutxa _____ Sukurtsala _____

KK edo libreta zkia _____

Data _____

Sinadura